

2015

KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

**Donostia Kulturaren Prentsa kabineteak** erakundearen komunikazio-beharrei erantzun zien 2015ean ere, hala programa espezifikoari dagokionez –agenda, jaialdiak, zikloak, eta abar– nola zerbitzu-eskaintzari dagokionez: ikastaroak, liburutegi-zerbitzua, espazioen kudeaketa, eta abar.

Horretarako, emanean jardun zuen, 2015eko datu hauek adierazten duten bezala:

- 176 prentsaurreko
- 38 literatur aurkezpen
- 3.500 agerraldi inguru idatzizko komunikabideetan
- 235 dossier gaikako
- 260 programa (gonbidapenak, liburuxkak, kartelak...)
- 350 prentsa-ohar
- 352 iragarki prentsa idatzian
- 70 e.buletin bazkideentzat.

Departamendu honek, gainera, donostiakultura.com-en goiburuko irudi kohesionatua kudeatu zuen; 2015ean, **beste 15 kultur marka** bildu zituen. Eta **dk bazkideentzako** arreta-eta fidelizazio-politika zuzentzen du; 2015ean, **90.000tik gora izatera iritsi ziren**.


## DONOSTIA KULTURA ON LINE

2015ean, Donostia Kulturak eta DSS2016Euk informazioa batera emateko kanalak ireki ziren; web-azal komunak izan zituzten, eta web orriko ingelesezko eta frantsesezko plataformak sendotu ziren.

Donostia Kulturarekin zuzenean zerikusia duten webgune guztien artean ia 2 milioi bisita izan zituzten (1.909.928 zehazki), eta Donostiakultura.com-ek **1.045.888 bisita** izan zituen 2015ean (aurreko urtean baino % 14,95 gehiago), lehenengo aldiz milioiaren langa gaindituz.

2015ean, hau izan zen ikusiena:

- 1.- DONOSTIA KULTURA AGENDA da oraingoz atariaren erakargarri nagusia, unean uneko eskaintzarik osatuena biltzen baitu.
- 2.- Donostiako Aste Nagusiaren programa (abuztuan).
- 3.- Ikastaroen eskaintza (irailean).
- 4.- DKren 90.000 bazkideek aukeran dituzten zozketa eta eskaintza bereziak.
- 5.- Donostiako liburutegietako mailegu-kontsultak.



Donostia Kultura webgunea



Hilabeteko agenda



Aste Nagusiaren programa

Nabarmenezkoa, halaber, gailu mugikorretatik gero eta bisita gehiago egiten direla webera. Hain zuzen ere, 2015eko abuztuan, gailu mugikorren bidezko sarrerak web atarirako sarreren erdia izan ziren. Eta donostiakultura.tv ikus-entzunezko webaren jarraitzaileak, 336.293 bisitaldirekin (% 2,42ko hazkundea).

Donostia Kulturak **82.253 jarraitzaile** ditu guztira **sare sozial nagusietan**: 46.679 Twitterreko kontuetan, eta 31.286 Facebook-ekoetan; horiez gainera, 3.688 jarraitzaile Instagram-en, eta 600 LinkedIn-en, sare sozial berriagootan.

## CASARES IRRATIAK 24 ORDUZ EMITITZEN DU 107.4 FM ETA CASARESIRRATIA.INFO-N

2015ean **35 irratsaio**ekin osatutako programazioa eskaini zuen. Horietatik 14 saio Arrosa sarearen bidez eskaini ziren, eta 21 Casares Irratian ekoitziak izan ziren; irrati-tailerreko partaideek, kolektiboek, irrati-ko lantaldeak, edo sail-arte-ko lankidetzan eginak.


Bestalde, EITBekin hitzarmena egin zen egunero 22:00etatik 23:00etara emititzen zituzten saio tematiko erreferentzialak Casaresen sintonian ere emititzeko. Estudioaren erabilera (400 sesio) asko igo zen gainera, eta programazio-ordu gehiago ekoitzi ziren ( 337).

## ARGITALPENAK


Zine departamenduak 2015eko *Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko katalogoa*, *Krzystof Kieslowskiren bizitza bikoitza* eta *iSigue grabando! Falso documental* argitaratu zituen (azkena, Gijongo Zinemaldiarekin batera).. San Telmo Museoa, berriz, *Elías, vida mía*: zinemari eskainitako bizitzaren argazkiak = *fotografías de una vida de cine* argitaratu zuen.



Donostia Kultura webgunea mobilan



Liburua: *Krzystof Kieslowskiren bizitza bikoitza*



Liburua: *Elías, vida mía*